



✉ 🖨 2013-11-14 · 10:32:29



Iraganek oraina pitzatzen dute



Maitte Gurrutxaga Otamendik, Dejabu panpin laborategiaren *Covek nije ptica/Gizona ez da txoria* antzezlanean oinarriturik *Habiak* izeneko komiki interesgarria atera du Txalaparta argitaletxearekin. Desterratutako hegaztiei buruzko liburua da, hegan egin ahal izateko sustraietara bueltatu behar dutenen istorioa biltzen duena

Liburuaren kontrazalean irakurri dugunez, “abiadura handiko trenea haren lurretatik pasatzen dela-eta baserria galdu duen Simon zaharraren eta, Balkanetako gerra atzean utzita, Euskal Herrira heldu den Selma erizain bosniarraren arteko harremana da liburu honen ardatza.

Maitte Gurrutxagaren pintzelek bi protagonisten hasierako aditu ezinen eta hartu-eman gatazkatsuen testigu izango dira. Baina, zuhaitzetako sustraiak hirietako espaloiak zartzatzen dituzten gisan, bien iraganek oraina pitzatuko dute, laguntasun istorio hunkigarri bati hasiera emanez.

Hemen duzue egileek eskaini duten [elkarrizketa](#).

[Txalaparta-k bidalita](#)